

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

1. Euskal txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren azpisektorea mantentzeko laguntzen programa.....	2
2. 2021ko MEC. Covid-19ak eragindako egoeraren aurrean, merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntzak.....	4
3. Hirigune, hiri merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa Covid-19aren aurrean. 2021.....	6
4. Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa.....	8
5. Merkataritzako bulego teknikoei zuzendutako laguntza-programa, Covid-19ari aurre egiteko	10
6. Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2021	12
7. Ekintzailtzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2021	14
8. Euskal Autonomia Erkidegoko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduen titularrentzako diru-laguntza	16
9. Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa – TMS 2021	18
10. EAEko turismo-sektoreari sostengua emateko 2021eko laguntza-programa.....	20



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Euskal txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren azpisektorea mantentzeko laguntzen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko martxoaren 2koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Euskadiko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren azpisektoreari sostengua emateko laguntza-programa, eta haren deialdia egiten baita.

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko martxoaren 2koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101359e.shtml>

Laguntza emateko ebazpena: Banakako ebazpena

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzen agindu honen xedea da oinarriak ezartzea Euskadiko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren azpisektorea, norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta mikroenpresak eta enpresa txikiak babesteko eta zuzenean laguntza ekonomikoa emateko, guztia ere COVID-19aren hedapena geldiaraztera bideratuta hartutako neurrien inpaktua minimizatzeko eta jarduerari ahalik eta azkarrena berrekitea ahalbidetzeko.

Kreditua: 15.800.000 euro

Hartzaileak: Norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak, Sozietate zibilak, Mikroak eta, Euskal txikizkako merkataritzako enpresa txikiak.

Jarduera Ekonomikoen Saillapen Nazionaleko taldeen barruan sartzen direnak:

- EJSN 47.71: jantzien txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
- EJSN 47.72: oinetakoen eta larruzko artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan

Merkataritza-establezimenduek egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura.

LH	Baietsitako eskabideak	Emandako laguntza	Onartutako eskaeren %	Emandako laguntza
Araba	266	227	%85,34	908.500,00 €
Gipuzkoa	1154	964	%83,54	3.854.000,00 €
Bizkaia	1462	1204	%82,35	4.818.000,00 €
Total	2882	2395	%83,10	9.580.500,00 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako enpresen kopurua	4.000	2.882



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

2021ko MEC. Covid-19ak eragindako egoeraren aurrean, merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 18koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira COVID-19aren aurrean merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programarako arauak eta egiten baita 2021eko ekitaldirako deialdia.

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2021eko maiatzaren 18koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira COVID-19aren aurrean merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programarako arauak eta egiten baita 2021eko ekitaldirako deialdia.

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 31koa, Turismo eta Merkataritzako sailburuordearena, honako agindu honen aurrekontu-kreditua handitzen duena: Agindua, 2021eko maiatzaren 18koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira COVID-19aren aurrean merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programarako arauak eta egiten baita 2021eko ekitaldirako deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Arauaren argitalpena eta deialdia: Agindua, 2021eko maiatzaren 18koa,. –2021ko maiatzaren 26ko EHAA, 102. Zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2103023e.shtml>

Huts-zuzenketa: Huts-zuzenketa, 2021eko maiatzaren 18koa,. –2021ko abuztuaren 4ko EHAA, 155. Zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104302e.shtml>

Gehitzeko ebazpena: Ebazpena, 2021ko abuztuaren 31koa, -2021ko irailaren 22ko EHAA, 190. Zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104845e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Programaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-establezimenduak eta zenbait zerbitzu modernizatzea sustatzeko, berrikuntzaren bitartez eta kudeaketa-tresnak, azpiegiturak eta ekipamendu komertzialak hobetuz, kalitate- eta lehiakortasun-maila handiagoa lortzeko, gogoan hartuta, bidenabar, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko egoera.

Hartzaileak: Laguntzak eskuratu ahal izango dituzte norberaren konturako langileek edo autonomoek, sozietate zibilek eta legez eraturako ondasun-erkidegoek, eta mikro-enpresek eta enpresa txiki eta



ertainek, baldin eta haien jardura nagusia merkataritzakoa edo zerbitzuetakoa bada eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako merkataritza-establezimenduetan edo zerbitzuetan jarduten badute.

Handitu ondorengo azken aurrekontua: 3.350.000 euro

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

LH	Aurkeztutako eskabideak	Baietsitako eskaerak	% Baietsitako eskaerak	Emandako laguntza	Laguntzaren batez bestekoa
Araba	103	62	%60,19	148.949,26 €	2.441,79 €
Guipuzkoa	570	463	%81,23	1.078.236,75 €	2.338,91 €
Bizkaia	1118	952	%85,15	1.777.934,14 €	1.867,58 €
Total	1791	1477	%82,47	3.005.120,15 €	2.038,75 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntzaren onuradun diren merkataritza-establezimenduen kopurua	800	1477



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Hirigune, hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa Covid-19aren aurrean. 2021

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 27koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako Hirigune proiektuaren 2021eko laguntza-programa, COVID-19ari aurre egiteko.

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Arauaren argitalpena eta deialdia: Agindua, 2021eko uztailaren 27koa, -2021ko abuztuaren 6ko EHAA, 156. Zk. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104329e.shtml>

Laguntza emateko ebazpena: Ebazpena, 2022ko martxoaren 10ekoa, -2022ko martxoaren 25ko EHAA, 61. Zk. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201386e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da hiri-inguruneetan merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzea eta biziberrituko diren merkataritza-eremuen kokapena hobetzea.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eta merkatarien elkarten arteko lankidetzaren publiko-pribatua bultzatu nahi da, udal-inguruneak hiri-ekonomiako gune gisa balioesteko zonako estrategiak garatzeko, udal-merkatarien elkarteei, elkarte mistoei edo hiri-merkataritzako plataforma, talde edo elkarteei zuzendutako laguntzen bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura.

Aurrekontu-betearazpena: Ordainketa-kreditua: **1.770.000** euros

Eskaerak:

- Eskaera egin duten elkarten kopurua: 76 elkarte
- Sortutako inbertsioa: 2.550.076,01 euro

Emandako laguntzak:

- Diruz lagundutako elkarte kopurua: 74 elkarte
- Dirulaguntzen zenbatekoa, guztira: 1.783.722,23 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diru-laguntzaren onuradun diren zonako elkarteak	70	74



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko.

AGINDUA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2021eko irailaren 21eko Agindua, 2021eko ekitaldian «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa arautzen eta iragartzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko.

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Agindua, 2021eko irailaren 21ekoa, . –2021ko irailaren 27ko EHAA, 193. Zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104920e.shtml>

Agindua, 2021eko abenduaren 21ekoa, . –2021ko abenduaren 24ko EHAA, 256. Zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106397e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

«Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» programaren xede nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburu autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txikiek kudeatutako hiriko merkataritza-jardueran aritzen diren establezimenduetako ondasunak kontsumitzea eta zerbitzuak ematea sustatu nahi da.

Honez gainera, hurrengo helburuak bete ditu programak:

- Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritzako eta zerbitzuen sektoreko enpresaburu autonomoei eta mikroenpresa eta enpresa txikiei indartzen eta sendotzen laguntzea.
- Eskaria estimulatuta, herritarrei eta enpresa-sareari laguntzea, horiengan oinarritzen baitira merkataritza-sektorea eta hiriko merkataritza-jarduera.
- Hiriko merkataritza-jarduera dinamizatzea, hark udalerrian eta eskualdean duen eragina sustatuta.
- Hiriko merkataritza-jarduerarekin zuzeneko lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduen maniobra-funtsa hobetzea.



- COVID-19 pandemiari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz establezimenduek pairatutako hainbat motatako murrizketen ondore ekonomikoa arintzea.

Kanpainara atxikitako hiriko merkataritza-jarduerarekin erlazioa duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetako kontsumoa lagunduko da diruz, horietan eskuragarri egongo den mota bakarreko deskontu-bonu baten bidez. «Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» bakoitza 10 euroko deskontu-bonua da, eta atxikitako establezimenduetan egindako 30 euroko edo gehiagoko erosketan aplikatu da.

Laguntza hauen onuraduntzat hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren hamasei urtetik gorako pertsona fisikoak, baldin eta hiru lurralde historikoetan banatutako «Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» direlakoak eskuratzen badituzte, agindu honetan ezarritako bitarteko eta bideen arabera.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura.

Hasierako aurrekontua: 4.650.000 euro

Gehitze osteko aurrekontua: 6.650.000 euro

Aurrekontu exekutatua (2022.03.21): 6.417.020,00 euro

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kontsumitutako bonuen kopurua	665.000	641.702



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Merkataritzako bulego teknikoei zuzendutako laguntza-programa, Covid-19ari aurre egiteko

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 5ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako 2021eko ekitaldirako laguntza-programa arautzen eta iragartzen duena, COVID-19ari aurre egiteko (MBT 2021).

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2021eko urriaren 5ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako 2021eko ekitaldirako laguntza-programa arautzen eta iragartzen duena, COVID-19ari aurre egiteko (MBT 2021).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko urriaren 5ekoa (2021eko urriaren 13ko EHAA, 204. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/08/2003126a.pdf>

AGINDUA, 2021eko urriaren 5ekoa (2021eko abenduaren 3ko EHAA, 242. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106113e.shtml>

Onuradunen ebazpena argitaratzeke

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea merkataritza-banaketaren sektoreari doako laguntza teknikoak ematea da, langile kualifikatuen bidez. Laguntza hauen onuradunak merkatarien elkarteak, federazioak edo agrupazioak dira, baita udalak edo udalek sustatutako garapen-erakundeak ere. Merkatarien elkarte, agrupazio eta federazioen kasuan, EAeko merkatarien elkarten erroldan inskribatuta egon behar dute.

Merkataritzako Bulego Teknikoen bidez, aholkularitza espezializatua eman nahi da, berrikuntzarekin, kalitatearekin eta teknologia berriekekin lotutako prozesuak bultzatu, eta udal-mailan edo banaketa-katean lankidetzak-estrategiak sustatu.

2021eko ekitaldia pandemiaren osasun-krisiak markatzen jarraitzen duenez, eta, ildo horretan, ahal den neurrian merkataritza-sektoreko kalteak arintzeko, beharrezkotzat jo da Covid-19k sortutako egoeraren ondorio ekonomikoak arintzeko ekintzak edo estrategiak bultzatzea.

Lanaldi osorako urtebetean kontratatuta edukitzeak duen kostuaren %90ra arte iritsi ahal izango da laguntzen zenbatekoa. Nolanahi ere, bulego bakoitzak gehienez jasoko duen dirulaguntza ez da 40.000 eurotik gorakoa izango.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura.

Aurrekontu-betearazpena: Ordainketa-kreditua: 960.000 euro / Konpromiso-kreditua: 960.000 euro.

Diruz lagundutako bulegoak: 48ra arte

Emandako dirulaguntza, guztira: 1.881.959,14 euro.

- Araba: 6 bulego lagundu dira -- 229.475,97 euro.
- Gipuzkoa: 19 bulego lagundu dira -- 755.797,27 euro.
- Bizkaia: 23 bulego lagundu dira -- 896.685,87 euro.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako bulego kopurua	50	48



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2021

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko martxoaren 24koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak 2021eko ekitaldirako arautzen eta iragartzen dituena (2021eko maiatzaren 16ko EHAA, 74. zk.).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko martxoaren 24koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/2102204e.shtml>

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 9koa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, 2021eko ekitaldian emandako laguntzen zerrenda jakitera ematen duena, 2021eko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituen Aginduak finkatutako esparruan.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105902e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuentzako programa, erakunde horien helburuen eta/edo ahalmenen artean badago turismo-jarduera garatzea eta sustatzea, EAEn turismolehiakortasuna sustatzeko, itzulgarriak ez diren dirulaguntzak baliatuta honako hauen moduko proiektuak egiteko:

- Turismoko lurralde-proiektuak helmugan erakargarritasuna hobetzen dutenak.
- Berrikuntzaren bidez eta turismo jasangarria eta arduratsua garatuz, helmugan kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko duten proiektuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura.

<u>Lurralde</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>	<u>Emandako dirulaguntza</u>
Araba	7	7	779.634,10 €	356.488,55 €
Gipuzkoa	14	13	1.412.831,17 €	627.031,66 €
Bizkaia	10	10	1.353.989,58 €	466.479,67 €
TOTAL	31	30	3.546.454,85 €	1.449.999,88 €

Deialdira 31 erakunde aurkeztu ziren, eta horietatik 1 ukatu egin da programaren baldintzak ez betetzeagatik. Azkenik, erakunde onuradunen kopurua 30ekoa izan da. Ondoren aipatutako turismoproduktuekin lotutako 100 jarduera garatzen lagundu da: gastronomia, kultura, kostaldea, natura, bilerak



eta pizgarriak (MICE), familia-turismoa, esperientziala eta bestelako tipologiak (Basque Mountains, City Breaks, Txakoliaren ibilbidea, etab). Era berean, jarduera horiek garatzeko eta kudeatzeko 36 lanpostu sortu/mantendu dira (5 gizonezko eta 31 emakumezko).

Bestalde, aipatu erakundeetatik 26ri laguntza eman zaio 21 langile kontratatuzko (5 gizonezko eta 16 emakumezko) haien eragin-eremuko enpresetan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa.

Aurrekontu-betearazpena %100koa izan da. Kalkulatutako dirulaguntza teorikoaren gaineko programaren defizita 146.222,73 eurokoa izan da. Egindako hainbanaketa %90,84koa izan da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gure ingurunearen eta Euskadiren ezaugarri bereizgarriak oinarri dituzten turismo-produktuak sortu, garatu, sustatu eta merkaturatzea bultzatzea:		
Onartutako eskabide kopurua	30	30
Onartutako proiektu kopurua, produktu motaren arabera (gastronomia, bilerak (MICE), natura, kultura eta bestelakoak)	90	100
(zuzenean edo laguntza teknikoak)	35	36
Helmugatan kalitatezko programak ezartzen laguntzea: Smart Business, Europako Etiketa Ekologikoa eta abar		
Programak ezartzeko lagundutako destinoen kopurua	23	26
Prestatutako enpresen kopurua	700	580
sortu/mantendutako enplegua	23	21



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Ekintzaitzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2021

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko apirilaren 14koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-enpresen sorkuntzari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko 2021eko ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten duena

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko apirilaren 14koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102648e.shtml>

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 17koa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita turismoko enpresen ekintzaitzari eta haien lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko programa arautzen duen Aginduak finkatutako esparruan 2021eko ekitaldian eman diren laguntzen enpresa onuradunen zerrenda.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/01/2200446e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozio berriak sortzen laguntzeko oinarriak ezartzea da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; halaber, haien kalitatea hobetu nahi da eta turismo jasangarriko eta eskuragarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako ildo hauetan tokirik badute:

- turismo-negozioko eredu berriak sortzea;
- turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura

Ildoa	Lurralde	Aurkeztutako eskaerak	Onetsitako eskaerak	Onartutako inbertsioa	Azken dirulaguntza
Ekintzaitzeta	Araba	12	3	250.440,59	40.338,46
	Bizkaia	34	6	1.466.708,45	86.502,96
	Gipuzkoa	61	5	2.074.309,16	73.158,58
	GUZTIRA	107	14	3.791.458,20	200.000,00
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	Araba	44	14	784.544,32	87.236,07
	Bizkaia	118	33	1.793.647,09	171.609,92
	Gipuzkoa	119	35	1.425.173,39	193.154,01
	GUZTIRA	281	82	4.003.364,80	452.000,00
	GUZTIRA	388	96	7.794.823,00	652.000,00



Aurreikusitako zuzkidura, argi eta garbi, ez da nahikoa izan aldeko iritzia zuten proiektu guztiei erantzuteko, deialdiaren baldintzetara egokitu direlako. 2021eko deialdian 388 laguntza-eskaera aurkeztu ziren, eta aurreko hiru ekitaldietako batez bestekoa 178koa izan zen; beraz, % 118ko igoera egon da. Defizita 1.140.336 eurokoa izan da, eta ekintzailtza-lerroko 45 espedienteri (I. eranskina) eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko lerroko 110 espedienteri (II. eranskina) eragin die, hau da, 155 eskabideri.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Indicador</u>	<u>Previsión</u>	<u>Resultado</u>
Ekintzailtza eta ekimen berrien ezarpena bultzatzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	15	14
Sortu/mantendutako enplegua	24	64
Eragindako inbertsioa (diruz lagundutako proiektuetatik)	1.000.000	1.241.275
Egungo turismo-enpresak eskarien baldintza berrietara egokitzen eta moldatzen laguntzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	86	82
Sortu/mantendutako enplegua	1.200	603
Eragindako inbertsioa (diruz lagundutako proiektuetatik)	2.500.000	1.863.851



1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduen titularrentzako diru-laguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailbururena, zeinaren bidez arautzen baita EAEko 2022ko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduen titularrei zuzendutako laguntza-programa, eta haren deialdia egiten baita.

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104742e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa Euskadiko gaueko ostalaritza sektoreari zuzenduta dago, COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortutako zailtasun-testuinguru batean, bere jarduera osasun-krisia kudeatzeko hartutako neurrien ondorioz mugatu edo eten dela ikusi baitu.

Diru-laguntza Programaren helburua da babesa eta zuzeneko laguntza ekonomikoa ematea gaueko aisialdiko establezimenduen titular diren norberaren konturako langileei edo autonomoei, mikroenpresei, enpresa txiki eta ertainei, COVID-19aren hedapena geldiarazteko hartutako neurrien inpaktua minimizatzeke eta jarduera ahalik eta azkarren bultzatzea ahalbidetzeko.

Diru-laguntza Programaren helburua lortzeko, laguntza-zenbateko desberdinak ezartzen dira: 10.000 euroko gutxienekotik 35.000 euroko gehienekora bitartekoak, eskabidean aipatzen den establezimenduaren itxiera-ordutegiaren arabera – talde horren ostalaritza-taldeak emana –, eta 2021eko ekainaren 1ean establezimenduan zegoen langile-kopuruaren arabera.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura.

Guztira 679 eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 520k (% 76,58), 513 erakunderenak, aldeko ebazpena jaso zuten. Aurkeztutako eskaeren % 74,42 10 langile baino gutxiagoko III. taldeko establezimenduei dagokie, % 18,27 10 langile edo gehiagoko III. taldeko establezimenduei, % 3,46 10 langile baino gutxiagoko IV. taldeko establezimenduei eta % 3,85 10 langile edo gehiagoko IV. taldeko establezimenduei.

12.600.000 euroko aurrekontutik 6.380.000 € gauzatu ziren guztira, eta horietatik 845.000 € Arabako gaueko aisialdiko establezimenduetara bideratu ziren, 2.775.000 euro Gipuzkoakoetara eta 2.760.000 euro Bizkaikoetara.

Lurralde	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztutako aurrek.	Azken dirulaguntza
Araba	104	69	1.225.000 €	845.000 €
Gipuzkoa	319	241	3.630.000 €	2.775.000 €
Bizkaia	256	210	3.250.000 €	2.760.000 €
TOTAL	679	520	8.105.000 €	6.380.000 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntzaren erakunde onuradunen kopurua	1.110	513



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa – TMS 2021

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko apirilaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko 2021eko laguntzak (TMS programa), eta iragartzen baita laguntza horien deialdia (2021eko maiatzaren 11ko EHAA, 91. zk.).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko apirilaren 29koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102649e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da turismo-jarduera berriz sustatzeko laguntzak arautzea eta haietarako deialdia egitea. Xede hori betetzeko, Euskadiko turismo-produktuak diseinatzeko, martxan jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emango dira. Agindu honetan, gainera, zenbait ekitaldi bultzatuko dira, hain justu «Euskadi Basque Country» turismo-marka proiektatzen eta Euskadi turismo-helmuga seguru gisa sendotzen laguntzeko COVID-19ak sortutako testuinguruan.

Helburu horrekin bat etorrira, honako xede hauek dituzten jarduketak lagunduko dira diruz:

- A) Euskadin garatutako turismo-produktuak sortzen, martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzea.
- B) Euskadin egindako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei laguntzea, baldin eta Espainian eta nazioartean proiektzioa badute, eta Euskadiren irudia eta turismo-posizionamendua sendotzen laguntzen badute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura

Programa horren ebaluazioa progresiboa izan da azken hiru urteetan, eta nabarmentzekoa da 2021ean lortutako datuak, hainbanaketa egin behar izan baitute, diruz lagundutako proiektu guztietarako aurrekontu-baliabide nahikoa ez dagoelako. 2021eko datuak:

aurkeztutako proiektuak	Ukatuak/ Artxibatuak	Aztertutako proiektuak	Onartutako proiektuak	Aurrekontu-zuzkidura	Ebatzitako dirulaguntza
122	15	107	87	717.000,00	716.999,56



2021eko programaren emaitzei dagokienez, honako adierazle hauek aipatu behar dira, agindu arautzailean ezarritako proiektuen tipologiaren arabera:

		Euskadin garatutako turismo-produktuak sortzen, martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzea		Euskadin egindako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei laguntzea	
Aurkeztutako eskaerak	Onartutako eskaerak	Onartutako proiektuen kopurua	Eragindako inbertsioa	Lagundutako ekitaldien kopurua	Eragindako inbertsioa
122	87	72	1.485.545,97	15	781.985,42

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Turismo-sektoreko enpresei turismo-produktu berriak garatzen eta merkaturatzen laguntzea		
Onartutako proiektuen kopurua:	50	72
Eragindako inbertsioa	2.275.000	1.485.545,97
Turismo-eskaintzaren bikaintasuna sustatzea		
Lagundutako ekitaldien kopurua	15	15
Eragindako inbertsioa	1.000.000	781.985,42



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEko turismo-sektoreari sostengua emateko 2021eko laguntza-programa

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urtarrilaren 26koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, EAEko turismo-sektoreari sostengua emateko 2021eko laguntza-programa arautzen eta haren deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko urtarrilaren 26koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, EAEko turismo-sektoreari sostengua emateko 2021eko laguntza-programa arautzen eta haren deialdia egiten duena.

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena, «Agindua, 2021eko urtarrilaren 26koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, EAEko turismo-sektoreari sostengua emateko 2021eko laguntza-programa arautzen eta haren deialdia egiten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Laguntzen agindu honen xedea da oinarriak ezartzea EAEko turismo-sektorea, norberaren konturako langileak edo autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak babesteko eta zuzenean laguntza ekonomikoa emateko, guztia ere COVID-19aren hedapena geldiaraztera bideratuta hartutako neurrien inpaktua minimizatzeko eta jarduerari ahalik eta azkarrena berrekitea ahalbidetzeko.

Agindu honetan jasotako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte beren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko edo ondare banandu bat osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteek, eta artikulu honetako 3. zenbakian zerrendatutako jardueren artean dauden EAEko turismo-sektoreko mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan badago haien egoitza fiskala eta soziala, bai eta lantokia ere, eta haren jarduerak inpakturik pairatu badu COVID-19k eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratu izanaren ondotik hartutako neurriak direla eta. Jarduera hauetara zuzentzen da zehazki:

- a) Turismo-ostatuko establezimenduak. Ostalaritza-establezimenduak, apartamentu turistikoak, kanpalekuak, nekazaritza-turismoa, landetxeak eta aterpetxeak.
- b) Erabilera turistikoko etxebizitzak eta logelen titular juridikoak, agindu honetan aipatzen diren betetze-baldintza espezifikoaren arabera, eta besteren konturako langile-taldea dutenak.
- c) Bitartekaritzako turismo-enpresak
- d) Garraio turistikoko enpresak
- e) Turismo aktiboko enpresak



f) Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa profesionalak

g) Turismo-gidak.

Diru-laguntza Programaren helburua lortzeko, hainbat laguntza-zenbateko ezartzen dira, gutxienez 6.000 eurokoak izatetik gehienez 20.000 eurokoak izatera bitartekoak, langile kopuruaren eta enpresaren tipologiaren arabera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Enpresa tipologia	Eskaerak	Emandakoak	Ezetsiak
Turismo-ostatuko establezimenduak	1024	841	183
Erabilera turistikoko etxebizitzak eta logelak titular juridikoak	35	14	21
Bitartekaritzako turismo-enpresak	208	150	58
Garraio turistikoko enpresak	63	46	17
Turismo aktiboko enpresak	159	130	29
Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa profesionalak	74	65	9
Turismo-gidak	124	113	11
Guztira	1687	1359	328

Lurralde Historikoa	Eskatutako zenbatekoa, guztira	Emandako zenbatekoa, guztira
Araba	1.770.000€	1.430.000€
Bizkaia	5.238.000€	4.206.000€
Gipuzkoa	5.566.000€	4.573.000€
	12.574.000	10.209.000€

Laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 17.700.000 eurokoak dira guztira, 2021eko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkionak. Horrela, aurrekontuaren %57.68 eman da. Eskatutako guztizko zenbatekoa aurrekontuaren 71.04 €-koa da, eta emandako laguntzak eskatutako laguntzen % 81.19 dira. Azpimarratu behar da ebaluazio hau egiten den egunean oraindik ez dela egiaztatu jarduerari eusten zaiola eskabideak aurkezteko epea amaitu eta lau hilabetera; beraz, adierazitako zenbatekoak aldatu egin daitezke egiaztapen hori egin ondoren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako enpresen kopurua	2563	1359